

Prentsa oharra

Nota de prensa



ORAIN ERE EMAITZA ONAK EMAN DITU DONOSTIAK AIREAREN ETA URAREN KALITATEAN

Donostiak emaitza bikainak lortzen jarraitzen du airearen eta uraren kalitateari buruzko analisietan. 2020ari buruzko Jasangarritasun Txosteneko datuak dira. Era berean, txosten horretan, pixka bat behera egin dute sortutako hondakin kopuruari eta kutsadura akustikori buruzko datuek.

Hala, Ekologiako zinegotzi Marisol Garmendia sozialistak, zera adierazi du: “pentsatzekoa zen bezala, pandemiak eta biztanleriaren konfinamenduak baldintzatu egin dute Jasangarritasun Txostenaren emaitza. Baldintzatze horren arrastoa alderdi batean baino gehiagotan ikusten da; mugikortasunean, energiaren kontsumoan eta merkataritzaren eta ekonomiaren jardueretan, esate baterako. Gauzak bere onera itzulitakoan, azkeneko urteotako joerara itzuliko dira alderdi horiek berriz ere”. Klima Aldaketaren aurkako Planaren eta DSS Klima 2050 planaren inguruan antolatutako 50 adierazle eta datu esanguratsu baino gehiago ditu txostenak.


Garmendiak azpimarratu duenez, “pandemiaren eraginak Donostiako ingurumen parametro batzuk hobetzen lagundu du. Horrek, kontzientzia handiagoa hartzen lagundu behar digu denoi hala denoi ere. Bi gauzatan: kutsadura akustikoaren eta garraio motordunek eragindako kutsaduraren indizeak murrizten jarraitu beharrean, batetik, eta klima aldaketaren aurkako borrokarako mesedegarri diren ohitura iraunkorragen eta osasungarriagoen alde egiten, bestetik”.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Jasangarritasun Txostenaren datu nagusiak

ÍNDICES DE CALIDAD DEL AIRE



* **Hiriko airearen kalitatea**, udalerrrian jarrita dauden neurketa estazioen bidez analizatzen da. Urtean airearen kalitatea “oso ona” edo “ona” izandako egunak % 97 izan dira Puñoko estazioan, % 92 Tolosa hiribideko estazioan eta % 89 Easoko estazioan eta % 88 Ategorrietako estazioan.


* **Uraren kalitatea**. Ezin hobea da orain ere: egindako analisien % 99,71n onak izan dira emaitzak. Urumeako uraren kalitatea aztertuta, ikusten da ingurumen helburuak gero eta gehiago ari direla hobetzen bokaletik gertuen diren tartetan (egoera globala *Ona* da Santa Katalinan) eta kostaldean (egoera globala *Ona* da Monpasen). Baina, ibaiaren erdialdean egindako analisien emaitzek (Loiolako zubiaren eta Santa Katalinako zubiaren artean) uraren kalitateak behean segitzen duela erakusten dute (egoera globala *Ona baino okerragoa* da Loiolan).

* **Hondakinak**. Pandemiak hondakinak murriztea ere ekarri du: 2019an baino %9,5 gutxiago, hain zuzen ere. Biztanle bakoitzak 442 kilo hondakin sortu du urtean. Gaikako bilketaren tasa handitu egin da. Biztanleko 189 kg hondakin bildu da gaika, guztizkoaren % 42,81. Zabortegeira eramandako edo balorizatutako hondakin kopurua ere jaitsi egin da hirugarren urtez jarraian: 253 kg/biztanleko.

Materia organikoari dagokionez, 29.562 familiak eta 1.863 establezimenduk hartzen dute parte hondakin organikoak haietzako edukiontzietan aparte biltzen. 2020An 4.942.270 kg materia organiko bildu zen. Familiak erabiltzen dituzten edukiontzietan pixka bat gutxiago bildu zen (% 9,6), eta sortzaile handienetan gehixeago. Gainera, 837 etxetan konpostagailua daukate, eta 94 familiak auzo konposta egiten dute hiriko 8 auzotan jarrita den programaren bidez.

Prentsa oharra

Nota de prensa




* **Mugikortasuna.** Pandemiak jarri dituen baldintzek nabarmen jaitsi dute garraio publikoaren erabilera. Dbusen, Lurraldebusen, EuskoTrenen eta Renferen bidaiak kontatuta, 20.736.812 hiri-bidaia izan dira denera; 110 bidaia pertsonako urtean 2020an, eta 179, berriz, 2019an. Donostiaren antzeko tamainako Espainiako gainerako hirietan baino txikiagoa izan da jaitsiera gure hirian. Dbusen egiten da hiriko bidaia horien % 86, eta % 40 jaitsi da 2019koaren aldean hura (17.818.043 bidaia 2020an).

Prentsa oharra

Nota de prensa

USO DE LA BICICLETA

Fuente: Departamento de Movilidad del Ayuntamiento de San Sebastián, Observatorio de la Bicicleta



Beste aldera gertatu da bizikletaren erabileran: asko handitu da. Hala, egunean bizikletan egindako joan-etorrien batezbestekoa 24.788 izan da; 2019. urtean baino % 14 gehiago.

Motorizazio indizea handitu egin da, eta goranzko joera izan du berriz ere, 2019an pixka bat jaitsi eta gero; 415 auto eta 147 ziklomotor 1.000 biztanleko 2020an. Hirian matrikulatutako ibilgailuen % 73,7k ingurumen bereizgarriren bat du.


* **Uraren kontsumoa** 210 litro izan da pertsonako eta eguneko. Igo egin da, beraz; 205 eta 207 litro artean ibiltzen baitzen pertsonako eta eguneko 2016. urteaz geroztik. 2020ko igoera faktore askoren ondorio izan daiteke: pandemiaren ondorio, besteak beste. Egoera horretan, izan ere, handitu egin dira galerak eta, batez ere, etxeko kontsumoa. Etxeko kontsumoa 144 litro izan da pertsonako eta eguneko; aurreko urteetako urteko batez bestekoa baino askoz gehiago (135 litro pertsonako eta eguneko, 2017tik 2019ra bitartean).

* **Kutsadura akustikoa.** Murriztu egin da kutsadura horren erasan handia jasaten duten pertsonen kopurua. 2017ko Zarataren Mapa Estrategikoan ageri denez, Munduko Osasun Erakundeak (OME) gomendatutakoa baino zarata-maila handiagoa jasaten duen biztanleria % 30 zen 2011n, eta % 11ra jaitsi da 2020an.

* **Berotegi efektua eragiten duten emisioak.** Datuak onak dira, aurreko urtean baino % 8 txikiagoak dira eta. Donostian berotegi efektuko 782 kilotona CO₂ isuri ziren 2019an, industriak isuritakoak kontuan hartu gabe. Horrek esan nahi du donostiar bakoitzak 4,2 tona bota zuela. Garraioa (% 60), zerbitzuen sektorea (% 17) eta bizitegi sektorea (% 15) dira emisio gunerik handienak. Hondakinen kudeaketak % 8 isurtzen du, eta lehen sektorea justu-justu iristen da % 1era ere.

Prentsa oharra

Nota de prensa



* **Lurzorua.** Hiriko lurzoru urbanizatuak azaleraren % 32,23 hartzen du, eta artifizializatutako azalerak % 43,39; azalera hori handitu egin da 2018koaren aldean.

Udalerriko leku askotan azaldu dira **kutsatuta izan daitezkeen lurzoruak.** Hala, udal barrutiak duen azaleraren % 2,4 da kutsatuta izan daitekeena. 2019an, beste 6 toki ikertu ziren; 1,01 hektarea seien artean. 2006az geroztik, 47 toki ikertu dira.

Bioaniztasuna babeste aldetik, Natura 2000 Sarearen bidez babestutako azalera dugu nabarmen; babestuta den lurralde guztiaren % 11 eta gure udalerriko azalera guztiaren % 4 hartzen du horren bidez babestutakoak eta. Hala, denera 1.678,05 ha dugu **babestuta**; azalera guztiaren % 27,53.


* **Eremu publikoaren banaketa.** Gaur egun, bideen komunikazio-sareak urbanizatutako azaleraren % 28,4 hartzen du. Bideen % 88,5ek 30 km/h-ra edo gutxiagora murriztuta dauka abiadura. Hala, “30eko hiria” dugu, bizikletak seguruago ibiltzeko modukoa. Bizikletan ibiltzeko moduan egokitutako bideak 82 km izatetara iritsi dira, beste 1.410 metro bizikleta-bide bereizi eraikita. Berdeguneek azalera urbanizatuaren % 20,3 hartzen dute; 21.21 m² biztanleko.

Prentsa oharra

Nota de prensa

CONSUMO ENERGÉTICO TOTAL DEL MUNICIPIO

Fuente: Ente Vasco de la Energía (EVE) y Dirección de Salud y Medio Ambiente (Ayuntamiento de San Sebastián)



* **Energia kontsumoa eta ekoizpena.** Argindarraren kontsumoa % 5,9 jaitsi da 2020an; betez beste 3.485 kWh biztanleko urtean. Dударik ez dago etxetik ateratzerik ez izateak eta merkataritza jarduera murrizteak eragin diotela horri; izan ere, industrian eta zerbitzuetan jaitsi egin da kontsumo hori, eta igo, berriz, etxeetan.

Gasaren kontsumoa jaitsi egin da (% 6); hau da, 3.698 kWh biztanleko urtean. **Iturri berriztagarrietatik** sortutako energia asko handitu zen 2018an, Txomingo District Heating martxan jarri zelako. Instalazio hark 7.400 kW-eko potentzia du instalatuta, eta 1.500 etxebizitzarentzako berogailua eta ur beroa ematen du. 2020an ere handitu egin da pixka bat energia mota hori; geotermiako, eguzki energia termikoko eta eguzki energia fotovoltaikoko unitate batzuk jarri ziren Udalaren eraikin batzuetan eta. Energia berriztagarriaren ekoizpen globala 10.742.914 kWh izango dela jo dugu, 2019an baino % 3,25 gutxiago, San Markosko zabortegea itxi eta biogas gutxiago sortuko delako.

2020ra arte 54.252 eraikinek lortu dute **energia eraginkortasun ziurtagiria**. Horietatik, % 6,7k A, B edo C kalifikazioa lortu dute. 2019 arte % 5,9k zuten kategoriarik eraginkorrenetako horietakoren bat aterata. Ziurtatutako azalera osoaren % 14,6 esan nahi du horrek.

* **Hiriko elikadura sistema.** Balio agrologiko handia duten lursailek eta inbentariatutako ustiategi estrategikoei 327,61ha hartzen dituzte; alegia, udalerraren % 5,4. Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluan (ENEK) 10 eragile ekologikok eman dute izena, eta 13,2 hektarea lantzen dituzte laborantza ekologikoan. Era berean, jotzen dugu 2.500-en bat pertsona arituko dela baratzetan, eta, beraz, biztanleen %1,5ek zerbaiten etekina aterako diela aisiako edo autokontsumoko baratzei.